



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

#### 44. INFORMAZIO BULETINA

> 2010eko Apirila



GIPUZKOA



### NABARMENDU BEHARREKOA

#### > Europa 2020 Arau Integratuak

«Europa 2020 Arau Integratuek» Europa 2020 Estrategiarako eta estatu kide bakoitzean erreformak egiteko esparrua zehazten dute. Oinarri horretatik abiatuta, estatu kideek erreformarako nazio-mailako programak landuko dituzte eta horietan zehatz-mehatz azalduko dituzte Estrategia berri honi jarraituz hartuko dituzten neurriak. Halaber, nazio-mailako helburuak betetzeko beharrezkoak diren ahaleginak eta herrialde bakoitzean hazkunde jasangarria oztopatzen duten arazoak ezabatzerako bideratutako neurriak bereziki azpimarratuko dituzte.

Honako hauek dira hamar arauak:

1. Finantza publikoen kalitatea eta bideragarritasuna bermatzea
2. Desoreka makroekonomikoei heltzea
3. Euroguneko desorekak murriztea
4. Ikerketa, garapena eta berrikuntzari (I+G+i) emandako laguntza optimizatzea, «ezagutzaren triangela» indartzea eta ekonomia digitalaren boterea askatzea
5. Baliabideen erabilera eraginkorra hobetzea eta berotegi-efektuko gasak murriztea
6. Enpresa eta kontsumitzaileentzako ingurua hobetzea eta industria-oinarria modernizatzea
7. Lan-merkatuko parte-hartzea handitzea eta egiturazko langabezia murriztea
8. Lan-merkatuaren beharrei erantzungo dien biztanleria aktibo kualifikatua lortzea, lanaren kalitatea eta etengabeko ikaskuntza sustatuz
9. Hezkuntza- eta prestakuntza-sistemen emaitzak maila guztietan hobetzea eta goi-mailako irakaskuntzan parte-hartzea areagotzea
10. Gizarteratzea sustatzea eta pobreziaren aurka borrokatzea

*Informazio gehiago:*

[http://ec.europa.eu/eu2020/pdf/COMM\\_PDF\\_SEC\\_2010\\_0488\\_F\\_ES\\_RECOMMANDATION.pdf](http://ec.europa.eu/eu2020/pdf/COMM_PDF_SEC_2010_0488_F_ES_RECOMMANDATION.pdf)

[http://ec.europa.eu/eu2020/pdf/COMM\\_PDF\\_COM\\_2010\\_0193\\_F\\_ES\\_PROPOSITION\\_DE\\_DECISION.pdf](http://ec.europa.eu/eu2020/pdf/COMM_PDF_COM_2010_0193_F_ES_PROPOSITION_DE_DECISION.pdf)



### > Europako Batzordearen lehen tasun estrategikoak 2010ari begira

Europa ekonomia-krisitik atera eta herritarrei onura zuzenak ekarriko dizkien politika aplikatzeko Batzordeak hartutako erabakia islatzen du lan-programak.

Batzordea lau esparru nagusitan ariko da:

- Krisiari aurre egin eta Europako merkatu-ekonomia sozialari eustea
- Pertsonak Europako jarduera-gunean jarriko dituen herritarren agenda sortzea
- Kanpora begira mundu mailako garrantzia duen anbizio handiko programa koherentea garatzea
- Europar Batasuneko lan-tresnak eta -metodoak modernizatzea

Batzordeak 34 lehen tasun estrategikoz osatutako zerrenda adostu du eta urtea amaitu aurretik garatuko dira. Halaber, beste 280 proposamen garrantzitsu adostu ditu, 2010 urtean eta hurrengo urteetan aztertzeko.

*Informazio gehiago:*

[http://ec.europa.eu/atwork/programmes/docs/cwp2010\\_es.pdf](http://ec.europa.eu/atwork/programmes/docs/cwp2010_es.pdf)

### > Milurteko Garapenerako Helburuak betetzeko ekintza-plana

Pobreziaren aurkako borrokari, oro har, eta pobreziari eragiten dioten gaiei Estatu bakoitzak ezin die bere kabuz aurre egin, jakinarazpenak baieztatu duenez. Erantzun globala behar duten erronka globalak dira.

Europar Batasuna munduko laguntza-emaita nagusia da, eta garapenari ematen zaion laguntza ofizial guztiaren % 60a ematen du. Halaber, munduko merkataritza-bazkide nagusia da.

Ekintza-planaren hamabi atalen artean, 2015 urtean Garapenerako Laguntzarako BPGaren % 0,7a bideratzeko egindako promesak bete ditzan EBri emandako bultzada azpimarratzen da. Ildo horretatik, urteko ekintza-plan errealistak eta kontrolatu daitezkeenak hartzea eskatuko zaie estatu kideei, banakako helburuak erdieste aldera.

*Informazio gehiago:*

[http://ec.europa.eu/development/icenter/repository/citizen\\_summary\\_COM\\_2010\\_0159\\_ES.pdf](http://ec.europa.eu/development/icenter/repository/citizen_summary_COM_2010_0159_ES.pdf)

[http://ec.europa.eu/development/icenter/repository/COMM\\_COM\\_2010\\_0159\\_MDG\\_EN.PDF](http://ec.europa.eu/development/icenter/repository/COMM_COM_2010_0159_MDG_EN.PDF)



### KOHESIO-POLITIKA

#### > Kohesio-politika: 2010eko txosten estrategikoa

Kohesio-politikaren 2007-2013 programak aplikatzeari buruzko 2010eko Txosten estrategikoa islatzen duenez, egiturazko aldaketetan inbertitzeko hasieran egindako konpromisoak betetzen ari direla adierazi dute estatu kideek. Aplikazio aktibotik hemezortzi hilabete inguru pasatu ondoren, jada 93.000 milioi euroko balioa baino handiagoa duten proiektuak aukeratu dira, eta horrek aldi horretarako guztizko finantza-bolumenaren % 27a adierazten du.

Estatu kideen txostenetan jasotzen denez, lehentasunezko inbertsio askok modu egokian aurrera egiten dute, hainbat esparrutan aurreikusitako proiektuen guztizko inbertsioaren heren bat edo gehiago esleitu ondoren. Ondorengo esparruetako proiektuak dira: ETEetan ikerketa eta berrikuntza sustatzea, finantza-ingeniaritza erabiltzea ETEei kapital handiagoa ekartzeko (JEREMIE ekimena), hiri-garraio garbia sustatzea, lan-merkatuaren eta etengabeko prestakuntzaren politika aktiboak aplikatzea eta hezkuntza- eta osasun-azpiegiturak berritzea.

Txosten horietan, halaber, mantsoago aurrera egiten duten sektoreak azpimarratzen dira eta horietan, neurri osagarriak hartzea beharrezkoa ikusten da.

*Informazio gehiago:*

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2010:0110:FIN:ES:PDF>

#### > Europako kohesio-politikaren inbertsioaren eragina

2000 eta 2006 urteen artean, kohesio-politikak EBren aurrekontuaren heren bat baino gehiago hartu zuen, hiru funtsen bidez egindako inbertsioetan: Eskualde Garapeneko Europako Funtsa (EGEF), Europako Gizarte Funtsa (EGIF) eta Kohesio Funtsa.

EGEFen arreta jarrita, Eskualde Politikako Zuzendaritza Nagusiak ondorengo hainbat ebaluazio egin ditu politikaren alderdi desberdinei buruz, garraio eta ingurumeneko sektoreak barne hartuz. Aipatu aldian garraioaren sektorean egindako 34.000 milioi euroko inbertsioa azpimarratzen dute txostenek. Kopuru horrek 2.000 km autobide eta 4.000 km trenbide eraikitzen lagundu du.

Zenbateko horiek autobide berrien % 24 eta EBn eraikitako abiadura handiko linea berrien % 13 adierazten dute.

*Informazio gehiago:*

[http://ec.europa.eu/regional\\_policy/sources/docgener/evaluation/expost\\_reaction\\_en.htm](http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docgener/evaluation/expost_reaction_en.htm)



### KOMUNITATEKO POLITIKAK

#### > Ibilgailu garbi eta energetikoki eraginkorrei buruzko estrategia

Ibilgailu garbi eta energetikoki eraginkorrak direnak garatzea eta ondoren neurri handian erabiltzea sustatzeko estrategia europarraren helburua, Europako automobilgintza-industriak mundu-mailan buru izateko papera finkatzen laguntzea da, bere produkzioa teknologia garbietan eta energetikoki eraginkorrak direnetan oinarrituz.

Planteamendu bikoitzean oinarritutako laguntza-esparrua ezarriko du estrategia europar berriak: ohiko motorren eraginkortasuna hobetzea eta kontsumitzaileentzat karbono-isurtze oso baxuen bidezko mugikortasuna egi bilakatzea. Estrategia berri honekin, Europa mailan bultzada eman eta ibilgailu ekologikoei klima-aldaketari aurre egiteko duten indarra guztiz aprobetxatu, Europak petrolioarekiko duen menpekotasuna murriztu eta Europako industria-ehuna indartu nahi du Batzordeak.

Besteak beste, ibilgailuen isurtzeak murrizteari buruzko legegintza-programarekin jarraituko du Batzordeak, bitarteko berrikustea barne hartzen duena; teknologia ekologikoei buruzko ikerketa eta berrikuntza lagunduko ditu eta eskariari zuzendutako pizgarriei buruzko arauak proposatuko ditu.

*Informazio gehiago:*

[http://ec.europa.eu/enterprise/sectors/automotive/competitiveness-cars21/energy-efficient/communication\\_en.htm](http://ec.europa.eu/enterprise/sectors/automotive/competitiveness-cars21/energy-efficient/communication_en.htm)

#### > Etorkizuneko Europako nekazaritza

Europar Batasuneko Nekazaritzako Politika Bateratuaren (NPB) etorkizunari buruzko eztabaida publikoa zabaldu du Europako Batzordeak.

Eztabaidak lau gai nagusi ditu:

- Zein da Europako Nekazaritzako Politika Bateratua sortzearen arrazoia?
- Zein helburu ematen dizkio gizarteak nekazaritzari bere aniztasunean?
- Zertarako erreformatu behar da NPBa eta nola lor daiteke gizartearen itxaropenei erantzutea?
- Zein tresna erabiliko ditu NPBak etorkizunean?

Urte bukaeran, 2013aren ondoren NPBaren etorkizunari buruzko jakinarazpena aurkeztuko du Europako Batzordeak.

*Informazio gehiago:*

[http://ec.europa.eu/agriculture/cap-post-2013/debate/index\\_es.htm](http://ec.europa.eu/agriculture/cap-post-2013/debate/index_es.htm)



### > Industrial kultural eta sortzaileen boterea askatzea

Europako Batzordeak Liburu Berdea landu du, Europako industria kulturalen eta sortzaileen boterea askatzera bideratutako ildoan kontsulta publiko baterako euskarri gisa. Liburu Berdeak finantziarioa eskuratzea hobetzeko beharra azpimarratzen du, bereziki enpresa txikien kasuan, sektoreak aurrera egin dezan eta hazkunde jasangarri eta barne-hartzaileari laguntzeko giltzarri gisa.

Sektorearen barruan daude arte eszenikoak, ikusteko arteak, kultura ondarea, zinema, telebista eta irratia, musika, argitalpenak, bideo-jokoak, hedabide berriak, arkitektura, diseinua, moda-diseinua eta publizitatea, eta kalitatezko enpleguak eskaintzen ditu EBko 5 milioi pertsonentzat eta Europako BPGari % 2,6arekin laguntzen dio. Halaber, industria kultural eta sortzaileak ekonomiaren gainerako atalak baino arinago hazten ari dira.

*Informazio gehiago:*

[http://ec.europa.eu/culture/our-policy-development/doc/GreenPaper\\_creative\\_industries\\_es.pdf](http://ec.europa.eu/culture/our-policy-development/doc/GreenPaper_creative_industries_es.pdf)

[http://ec.europa.eu/culture/our-policy-development/doc2577\\_en.htm](http://ec.europa.eu/culture/our-policy-development/doc2577_en.htm)





### e-LIBURUTEGIA

#### > Europar Batasunaren lan-merkatua 2020an

Cedefop-ek landutako txostenak jasotzen dituen aurreikuspenen arabera, kualifikazio-maila altua duen biztanleria aktiboaren portzentajea egungo % 29tik % 35era arte igoko da 2020an, kualifikazio gutxiko enpleguen kalterako.

Erretiroa hartzen duten edo lan-merkatua uzten duten langileak ordezkatzeko beharrak adierazten du lanpostuen galera garbia duten lanbideek ere enplegurako iturri bideragarria izaten jarraituko dutela: 73 milioi ordezkapen-lanpostu inguru eskuragarri egongo dira.

Zerbitzuen ekonomia bateranzko trantsizioa areagotu egingo dela baieztatzen du txostenak eta ia zazpi milioi enplegu berri sortuko direla aurreratzen da, bereziki ezagutzari eta trebetasunen lanpostu intentsiboei dagozkionak. Esaterako, goi-mailako zuzendaritza funtzioak eta espezializatuak edo teknikoak.

*Informazio gehiago:*

[http://www.cedefop.europa.eu/EN/Files/3052\\_en.pdf](http://www.cedefop.europa.eu/EN/Files/3052_en.pdf)

#### > Europar Batasunaren gizarte egoera 2009

Europako Batzordearen urteko txostenak gizarte egoerari lotuta Batasunaren eta estatu kideen adierazle nagusiak aurkezten ditu, 17 azterketa-gune jasoz, biztanleriatik hasi eta laneko istripu eta gaixotasun profesionaletaraino.

Azterketa berezi gisa, krisiaren eragin sozialean nagusitzen da, bi alderditatik begiratuta: gizarte-giroan (pertsonala, orokorra eta gizarte-babesa eta gizarteratzea) eta bazterketa sozialen (enplegua, gizarte-babesa, enplegu-motak...) duen eragina.

*Informazio gehiago:*

<http://ec.europa.eu/social/main.jsp?catId=501&langId=en>



### ADIERAZLEAK

#### > Europar Batasuneko estatuen finantza publikoak

Eurostaten argitalpenak estatu kideek 1996-2009 aldirako finantza publikoen oinarritzko datu eta adierazleak modu integratuan eta koherentean jasotzen ditu.

Besteak beste, gastuak, diru-sarrerak, defizit publikoa, transferentzia eta bestelako ekonomia-fluxuak jasotzen ditu.

*Informazio gehiago:*

[http://epp.eurostat.ec.europa.eu/portal/page/portal/product\\_details/publication?p\\_product\\_code=KS-EK-10-001](http://epp.eurostat.ec.europa.eu/portal/page/portal/product_details/publication?p_product_code=KS-EK-10-001)